

ENPLEGU BERDEKO profesionaleri diploma banaketa.

2013/05/31

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan emandako ikastaro hori Lanbidek enplegu berdeari buruz bultzatutako ekimenen barruan dago. Kualifikazio handiko gazte langabeen enplegarritasuna hobetzeko helburua duite ekimen horiek.

Hain zuzen, ikastaroaren asmoa unibertsitateko edo lanbide-heziketako goi-mailako titulua duten gazteak enplegu berdeei lotutako lanbide-gaitasunetan trebatzea da. Ingurumenean eragindako inpaktu eta alderdi guztiak zaindu, aztertu eta minimizatzen dituzten negozioetan daude enplegu horiek. Garatutako prestakuntza-ekintzak 350 ordu iraundu. Horretan, ikasleek enplegu berdearen inguruko hainbat ikasgai landu dituzte, esaterako ekintzailtza, globalizazioa, marketin berdea, ingurumena kudeatzeko sistemak, produkzio-prozesuen ekoeraginkortasuna eta proiektuen kudeaketa.

Ikasle horiek gaur egun ikastaroko edukiekin zerikusia duten praktikak egiten ari dira zenbait enpresa industrialetan eta entitatetan. Horien artean honako hauek aipa daitezke: Copreci Scoop, Fagor Ederlan Scoop, Alejandro Altuna S.A., Orkli Scoop, Natra, Goizper Scoop, Miba Scoop eta Gasteizko Udala. Praktikak irailaren 30ean amaituko dira.



Enplegu berdea